



URT **IZENIK**
ZUBIAURRE **GABEKO**
OTAMENDI **LURRAK**

n a r r a t i b a .

erein

IZENIK GABEKO LURRAK

Narratiba, 96

Obra honen edozein erreproduzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.conlicencia.com; 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

1. argitalpena: 2016ko maiatzean

Maketazioa:

Itxaropena

© Urt Zubiaurre Otamendi

© EREIN. Donostia 2016

ISBN: 978-84-9109-126-4

L. G.: SS - 615/2016

EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300 F 943 218 311

e-mail: erein@erein.eus

www.erein.eus

Inprimatzailea: Itxaropena, S. A.

Araba kalea, 45. 20800 Zarautz

T 943 835 008

e-mail: itxaropena@itxaropena.net

www.itxaropena.net

Urt Zubiaurre Otamendi

IZENIK GABEKO LURRAK



Maddiri

AITZINDARIA

Izenik gabeko lurretatik ez zera iñoiz itzuliko.

XABIER LETE

1 827. urtean, Falerongo gudua gertatu zen egunean, Londresen nintzen ni, *Geographic Club* mitikoan hain zuzen. Leku galanta zen hura: sartzean pasillo luze bat igarro eta sala handi bat agertzen zen bat-batean, eta han ikus zitezkeen bata bestearen ondoan mundu osoko eserleku klase guztiak, besaulki eta sofa guztiak, dibanak, eta egongelako gauza guztien tamaina ikaragarria zen: koadroena, hormena, lanparena,...

Nik bukaera parteko silloi beltz bat aukeratu nuen esertzeko. Eta hantxe egon nintzen denbora luzean apaindura guztiari begira, hainbeste amestutako lekuaren arima lehen egunetik gorde nahian, bere xehetasun guztiak neureganatzen. Berdin egiten nuen whiskiarekin ere, eta edalontzia poliki miazkatzen tematzen nintzen, eta ez nire herrixkan edaten den bezain latz eta azkar.

Baina, egia esan, klub hartako dena egiten zitzaidan oso diferente, ez zuen ezerk nire eskualde eta jendearekin zerikusirik, batez ere whiskiak, etxean aitak edaten zuen pattar gogorraren erabat bestelakoa baitzen, eta edaten nuen tanta bakoitzak gogorazten zidan ez nintzela gai izango likido hura behar bezala dastatzeko, Eskoziako egurraren eta landareen zaporea nabarmentzeko, eta gogorazten zidan halaber, agian, niretzat ez zela zilegi hain

etxe bikainean egotea, alegia: ez zela hura Irlandako pobre baten lekua. Eta amets ederra goiz edo berandu akabatuko zela niretzat.

Gainera, bazen beste arrazoi bat ere arrotzaserako: aretoan inork ez ninduen aintzat hartzen. Denek, aberats eta noble zahar haiek, ez zidaten begiratu ere egiten. Eta horrek batetik urduritzen ninduen arren, bestetik plazer zital bat ernatzen zuen nigan, ezen banekien goitik begiratzen zidaten *lord* horiek, klubeko kide duinenek, ordubeteren buruan txalotuko nindutela: niri emango zidaten eskua, niri galdetuko zizkidaten mila zalantza Afrikari buruz, eta eskainiko zidaten, azkenik, merezi nuen estimua eta dirua, eta saria eman eta gero, nirekin eseriko ziren mahai haie-tako batean, eta Indiako terik onena edango genuen gure erregearen omenez.

Horrela nengoela, urte luzetako mendekua noiz buru-tuko zain, agure mehar bat eseri zen nire ondoan.

–Lanhart jauna, ezta?

Jaiki nintzen, jaka lotu eta eskua eman nion, buruare-kin baietz eginez.

–Ohore handia da zu ezagutzea.

–Baita berori ezagutzea ere, *sir*.

–Mesedez, gazte, hitz egidazu zuka; estimatuko nizuke.

–Nahi duzun bezala. Baina nola jakin duzu ni nintzela?

Izan ere, egunkarietan, zoritxarrez, ez baitzen nire gor-puzkeraren edo antzaren zehaztasunik eskaintzen.

–Erraza –esan zuen agureak–: arropagatik eta orrazke-ragatik batik bat. Baina bada beste zerbait ere...

–Esan.

–Nire amak esaten zuen gauza bat etorri zait gogora: pobrea dela errenkan jartzen den lehena, hain zuzen ere, janaria emango ote dioten ala ez zalantzan dagoelako. Eta zu goizegi zatoz, Lanhart jauna.

–Garaiz iristea gustatzen zait, besterik ez.

Ez zitzaidan bere gogoeta gustatu, ezen gizon hark berehala antzeman baitzuen zein zen nire barneko aldartea, hau da, maskarada batean trajerik kaskarrena ekarri duena bezala sentitzen nintzela, eta indiferentziazko barre bat egiten saiatu arren, ezin esan erabat lortu nuenik.

–Lasai, ez zintudan mindu nahi. Ni ere jatorri apalekoa nauzu. Galesko mehatzetakoa zehazki. Eta ez zaizkit hemengo handikeriak gustatzen. Kalekume hauek... –bota zuen inguruetara begira—. Beti uste izan dut Afrikan astebete pasatu beharko luketela, hain ondo ezagutzen omen duten munduak irents ditzan.

Afrika aipatzearekin batera lasaitu egin nintzen azkenik, eta lehen aldiz sentitu nuen neure burua arratsalde hartan eta areto erraldoi hartan. Afrikan egondakook bizkiak baikara, eta agureak nire sentsazio berberak zituela ohartu nintzen, eta denbora luzean aritu ginen solasean, zebra bitxiez, gorilaren begirada gizatiarraz, eta oihanean jausten den zuhaitzaren soinuaz.

–Munduaren bukaera dirudi –esaten zidan begiak itxita—: uste duzu zuhaitz batek bestea joko duela eta erorketa ez dela inoiz geratuko, oihana ez baita babesleku ona.

Bai, horixe pentsatzen nuen nik ere. Nabari zen gizon

hura eta biok bi mundutako partaide ginela, eta ezagutzen genituela ibaiko hezetasunaren kalteak ere.

–Eta bero hori..., sartzen zaizuna azalean eta badirudi beste geruza bat daukazula soinean...

–Euliz eta izerdiz eginikoa...

–Bai. Eta batez ere Niger ibaia igarotzeaz zaudenean, eta ez dakizu jada zein erreinutan zauden eta kasik ze izen duzun ere.

Agure hark ukabilak ixten zituen bidaiaren nondik norakoak aipatzean, eta, aspaldiko gertaerak izan arren, artean gogoan zeuzkan gehienak, oraindik bihotzean zeraman Afrikaren miztoaren igurtzia, eta gauza asko itauntzen zizkidan bere iraganari eusteko.

Begiekin batera, eskuetako zainak suspertzen zitzaizkion, baita lepoko giharrak ere. Arnasterakoan, hiltzorian dagoen lehoi kartsua zirudien.

Edariaren bila altxatu zenean ikusi nuen zer zen bera-gandik erakartzen ninduen. Estimua eta jakin-mina pizten zidana. Hain zuzen ere, beste kideek errespetuz begiratzen ziotela. Jatorri xumea izanagatik, bere ibilera eta keinuak benetan ziren eleganteak, eta *lord* haietako bat zirudien ez-bairik gabe, Londresko kaleetan jendeak agurtzen duen zaldun horietako bat alegia.

Tearekin etorri zenean, eskua ukitu nion.

–Badakit zertara zatozen, *sir*.

–A bai? –esan zuen harriturik.

–Bai, kosta zait antzematen, baina ohartu naiz azkenean. Niger ibaia aipatu duzunean jabetu behar nuen,

baina leku hau..., eta jende hau...; dena da hain berria niretzat!

–Badakizula orduan... Bota, seme, irrikaz naukazu.

–Ez, ez, has zaitetz zeu zeure lanarekin. Hasi galdetzen plazer duzunean.

–Galdetzen?

–Bai, noski. Mila xehetasun eman beharko dizkizut: nola sartu nintzen hiri santuan; zein mozorro erabili nuen han sartzeko; eta, batez ere, nola lortu nuen alde egitea.

–Alde nondik, hiri santutik?

–Bai, ea oihanean barrena saiatu nintzen kostara iristen. Ala desertuan barrena. Eta zergatik ez ninduten harrrapatu.

–Ez, ez, ez naiz hori galdetzera etorri.

–Bai, *sir*, ez duzu zertan arduratu. Ulertzen dut klubak gauzak ongi egin behar dituela, eta 2000 libera diru asko dela ni bezalako paria bati emateko.

–Diruak ez du deus inporta, seme.

–Niri bai, eta ni zuen lekuan banengo –esan nuen hango gizonak seinalatuz–, horixe egingo nuke: ziurtatu, hiri santuan egon dela dioen ezezaguna han izan dela, eta ez dela zuen kontura barre egitera datorren beste iruzurti bat.

–Ez da diru kontua. Niri dirua ez zait batere axola.

–Baina zure kideei bai, agian ehizarako zakur mordoa eros lezakete diru horrekin, nik zer dakit...

–Eurentzat lau sos besterik ez da. Eta ez nator zuk egingakoa baieztatzen, Lanhart jauna.

–Seguru?

–Seguru –esan zidan apur bat aspertuta, eta edalontzia utzi eta sakelako erlojuari begiratu zion une batez–. Ez nator zuri deus galdetzera. Abisu ematera natorkizu besterik ez.

Begirada arraroa zuen. Begiratzen zidan alaitasunez, sugarrez, gaztearekiko inbidiaz, baina aldi berean, paradolikoki, ez zitzaidan haren hizkera gustatzen, ez ninduela erabat serio hartzen otu zitzaidan.

–Sinesten dizut, Lanhart jauna. Badakit hiri santuan izan zarela; sartu eta zure begiak ikusi hutsarekin jabetu naiz horretaz. Badakit ere (edo imajinatzen dut) nola iritsi zinen hara. Nola hartu zenuen karabanen bidea, Mauritaniako itsasotik abiatuko zinen, edo Kairotik bestela, eta hiri santuan maiz izandako norbaiten adiskide bihurtu, arabiarren bat segur aski, eta sartuko zinen mozorroturik berarekin, beste fededun baten modura.

–Bai –esan nuen dena gogoratuz–. Sartzea ez zen gauzarik zailena izan.

–Askozaz okerragoa da hiritik ateratzea. Jakinaren gainean egonik, gainera, zer gertatu zitzaion saiatu zen azkenari.

–Alexander Gordon Laing jaunari?

–Bai, berari –eta begiak itxi zituen une batez–. Dударik gabe aintzat hartu zenuen Laing tenientearen pasadizoa. Eta ez zenuen mozorroa kendu basamortu osoa gurutzatu arte. Bestela, bideko tuaregek zureak egingo zituzten eta.

–Bai, egia diozu, *sir*: desertuan ere, euretako bat izan nintzen, lehenengo oasietan batez ere.

–Oso ongi, gazte; hantxe hil baitzen hura.

–Hil? Ez al zuten bertan akabatu?

–Hil..., erail...; nahiago duzuna.

–Nahiago dut “erail”, *sir*; Afrikan gure hitzek balioa galtzen baitute, eta azkenerako, hainbeste krudeltasunen poderioz, sentimenduak ere desagertzen zaizkizu.

–Krudeltasuna... –errepikatu zuen berak–; ez da lan erraza gure hitzak Afrikako mundura itzultzea. Nire iritzian tuareg haien portaera ez zen krudela izan, Lanhart jauna; errukitsua baizik.

–Errukitsua?

–Bai, nik ere uste nuen heresiagatik hil zutela Laing tenientea, bera izan zelako hiri santuan sartu zen lehen sinesgabea; baina hilabete hauetan denbora asko izan dut gogoe-ta egiteko. Eta, badakizu gauza bat?, segur naiz haren hobe beharrez egin zutela.

–Tripak ateratzea? Desertuko txakalei haren barrenak eskaintzea?

–Hilik zegoela ziurtatu baizik ez zuten nahi, lagun, gehiago sufri ez zezan.

–Sufritu?

–Bai: maldizioarekin bizitzea. Maldizioak erabat pitzatu zion burua, seme. Ba al dakizu beleei tiroka hasi zela gaizoa?

–Maldizioa, zein maldizio?

–Meskitakoa, Lanhart jauna.

–Ez dakit zertaz ari zaren.

–Noski badakizula! –esan zuen apur bat haserre–. Bestela nola da posible?

–Zer?

Burua atzeratu eta sabaira begiratu zuen.

–Goazen berriz hastera. Meskitara sartu zinenean, ikus zezaten beste fededun bat zinela, eta errituak behar bezala egiten zenituela eta Alari ematen zeniola zure esker ona...

–Bidaiaren amaiera onagatik...

–Eta adobezko pareta hartan irakurri zenuen...

–A! Esaldi hura, sineskeria hura!

–Sineskeria hura, diozu, baina une hartan burua jaitsi beharrean izan zinen hotzikarak zirela eta, kolkoan barrena oihaneko txindurri guztiak sartu baitzitzaizkizun.

–Baina orain ez nago han, ez nago Afrikan.

–Baina gauero galdetzen diozu gauza horien zergatia zeure buruari, zergatik den posible, zuk, zenbat urte dituzu?

–Hogeita bi.

–Hogeita bi urteko gazte irlandar batek, arabieraz justu antzean solastatu, baina irakurtzen tutik ez dakienak...

–...

–Nola liteke madarikazioari antzematea: ulertzea, zuretzat hizki horiek marra okerrak besterik ez baitira?

–Ez dakit, *sir*. Agian norbaitek irakurriko zizkidan.

–Ez da posible. Debekatua dute ozenki esatea, Alaren eta santu guztien haserrea ez pizteko.

–Batek daki. Imajinatu egingo nuen.

–Hitzez hitz? –eta irribarre maleziatsu bat irten zitzaion.

–Baliteke!

–Baliteke, Lanhart jauna.

Ingurura begiratu zuen, eta gero erlojua atera eta mahai gainean jarri zuen niri begira. Erloju eder distiratsua zen, zenbaki erromatarrez jantzia. Pixkanaka, tik-tak xumea entzuten hasi nintzen egongelako isiltasunari gailentzen.

–Baliteke... –bota zidan agureak–, baliteke irteera bat geratzea ere, diot, maldizioa saihesteko.

–Nola?

–Joan zaitetz hemendik, gazte, ez kontatu inori hiri santuari buruzko ezer.

–Joan, nora ordea?

–Marokora, Aljeriara, edo Istanbulera nahi baduzu. Sar zaitetz meskita batean, eta has ezazu benetako fedearen ibilbidea.

–Eta gaurko saria zer?

–Diruak ezin dizu lagundu orain, Lanhart jauna. Ezta ospeak ere.

–Baina iruzurti baten moduan geratuko naiz!

–Hori da hain justu gerta dakizukeen gauzarik onena –eta nire begien goibeltasuna ikusirik, gaineratu zuen–: Ez dio axolarik, denok gara iruzurtiak hein batean.

–Ni ez.

–Zu ere bai. Eta ez nolanhikoa gainera.

–Barkatu, baina agian Londresko alproja handiena zarelako uste duzu hori, *sir*. Agian ni engainatzera etorri zarelako, nik dirurik hartu ez dezadan, pobre bati ez emateko.

–Eta nork eskatu dit hori?

–Ez dakit, hemen dauden guztiek.

–Ez izan inozoa, seme. Zahar txatxu hauek gustura emango dizute dirua. Gustura asko. Uste izango baitute komertzio-bide dezente irekiko dituela zure lekukotasunak. Eta munduaren konkistan berriz hartu diotela aurrea Frantzia handiari, beste behin: Indian bezala, Zelanda Berrian bezala, Urrearen Kostan bezala. Baina Europa zaharrea bizi dira, Lanhart jauna, ez dute ulertzen zuk eta nik ulertzen duguna.

–Eta zer da hori?

–Beti gabiltzala ihesean. Eta, ondorioz, beti hartu behar direla neurriak.

–Ni ez nabil inondik ihesean.

–Ez? Galdera bat egin nahi nizuke, bada. Noiz kendu zenuen tunika? Portuan? Itsasontzian?

–Beranduago. Madeirako uharteak pasatuta.

Barrez hasi zen berriz. Eta hastearekin batera, kapela eskatu zion zerbitzariari eta makila eta berokia hartu zuen arinki.

–Nora zoaz, baina?

–Nik egin dut egin behar nuena, seme. Hau da zure mesedetan egin dezakedan guztia. Orain, zuk egin behar duzu egin behar duzuna.

–Estimatzen dut zure ardura –esan nion zutituz–, baina ohituta nago nire burua defendatzen. Afrika osoa gurutzatu dut, *sir*. Eta hiri santuan sartu nintzen, eta ez zegoen sartzeko modu askorik.

–Bejondeizula, seme. Nire zorionik beroenak. Baina begiratu erlojuari. Jendea sartzen hasia da.

Eta egia zen: aretoa betetzen ari zen. Kazetariak eta bisitarien marmarrak zetozen pasillotik, eta elkarri galdetzen zioten nolakoa izango ote zen Lanhart jaun misteriotsu hori.

Halako batean, agureak, emeki, erlojua laga zidan eskuetan.

–Hamar minutu dauzkazu, seme. Eta ez zaitzala men-debaldeko harrokeriak deskuidatu; nik bezain ondo dakizu leku batzuetatik irtetea ez dela posible –esan zuen buruarekin agurtuz–. Eta, irteteko modurik ezean, Lanhart jauna, nolatan ausartu daramazun mozorroa kentzera?